



IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

Ikastetxearen izena:

Azkorri Ikastetxea

Ikastetxearen kodea:

014742

Data:

2023(e)ko ekainaren 16(a)





1. SARRERA

Ikastetxearen testuingurua

Kokapena, mailak, ikasleria, klaustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

Azkorri Ikastetxea Getxon kokatutako eta itunpekoa, laikoa eta eleanitza den ikastetxea da. Hauek dira Azkorrik barne hartzen dituen ikasketa-etapak: 2 urteko ikasgela, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoa. Hortaz, Azkorri hezkuntza-proiektua izanik eta, kooperatiba-ereduaren arabera familiek eratuta, balioetan oinarritutako hezkuntza integrala eta laikoa eskaintzen du, 2 urtetik hasita 18 urtera arte, kudeaketa-eredu iraunkor batekin. Kooperatiba bati lotutako izaera demokratiko eta parte-hartzaileak antolakuntza-egitura ezberdinen arteko oreka bilatzen duen partaidetza-filosofia sostengatzen du. Azkorrik proiektu linguistiko propioa garatu du. Euskara, gaztelania eta ingelesa oinarritzko hezkuntza gisa lantzen dira eta frantsesaren lehen ezagutza ahalbidetzen da DBH 1. mailatik aurrera. Hainbat diziplina jorratzen dituzten hezkuntza esperientziak egituratzen dira baota ere, ingelesa jarduera-hezkuntza izan dadin. Ikastetxe handi batek dituen abantailaz gozatzen du Azkorrik; bere tamainagatik, arkitekturagatik, paisaia naturalengatik eta kirol instalazioengatik (futbol zelaia, saskibalo zelaia, frontoia...) batik bat. Gure ikasleak beren hezkuntzaren erdigune eta eragile aktibo bilakatzen dira, haien potentziala ezagutzuz garapen integrala sustatzeko helburuarekin.

Era berean, Azkorri proiektu dinamiko eta sortzailea da, eta, hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartzearekin, berrikuntza kulturaren aldeko apustua egiten du; profesional kualifikatu eta konprometitueta oinarrituz, etengabe eguneratutako metodologia eta bitartekoekin. Hori guztia familiei konfiantzazko eta hurbileko giro batean eta, aldi berean, plurala eta mundura irekita dagoelarik.

Azkenik, esan dezakegu Azkorriren baloreak koherentzia, konpromisoa, sormena, espiritu kritikoa, ekimena, errespetua, erantzukizuna, elkartasuna, iraunkortasuna eta tolerantzia direla.

Azpiegiturak

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

Azkorri prozesu eta dokumentu guztiak formatu digitalean erabiltzen dira (hezkuntza, administrazioa...) birtualizazioa sustatuz. Nabarmendu ditzakegu hurrengo 4 prozesuak:

- Zentroaren birtualizazioa: webgune propioa (zentroari buruzko informazioa, albisteak, informazio kooperatiboa, informazio akademikoa...), familiekin bi norabideko komunikazio kanala INIKA plataformaren bidez eta helbide elektronikoa batekin.

- Ikasgelako birtualizazioa: Ikasgelako saioetan euskarri digitaleko aplikazio informatikoak erabiltzea, testu-liburuen bertsio digitalak erabiltzea, gela guztietan Internetarako sarbidea informazioa bilatzeko, hodeiaren erabilera ikasleentzako sarbidearekin ikasgaiaren garapenean eduki ezberdinetara sartzeko.

- Irakaskuntza-jardueraren birtualizazioa: Hau da, irakasleentzako koordinazio-prozesuen, edukien sorkuntzaren, ebaluazioen eta fakultatearen berezko dokumentazioaren, non papera gutxitu eta dena digitalki kudeatzen den.

▣ Ikastegiko Administrazioaren birtualizazioa: Administrazioa - Idazkaritza - Zuzendaritza Zentroko dokumentazio sentikorra digitalki partekatu eta lantzea, paperaren erabilera minimora murriztuz.

Digitalizazio prozesua ikastetxean ESKOLA 2.0 programaren ezarpenarekin hasi zen: ordenagailu eramangarriak, 2 informatika gela eta ordenagailuak ikastetxeko gela guztietan erabilita Haur Hezkuntzatik DBH 2. mailara arte, arbela digitalak eta proiektoreak, batik bat.

Azkorri Ikastetxeak Azkorri Ikastetxeak IKT heldutasun ertaineko ziurtagiria lortu zuen 2017an. Hauek dira irakaskuntzarako erabiltzen diren tresna digitalak: 19/20 ikasturtean eskolak chromebook bat jarri zuen irakasle guztien eskura. 19/20, 20/21 eta 21/22 ikastaroetan, irakasleek GSUITE ingurune prestakuntza jaso zuten. Covid-ak eragindako pandemian, argi geratu zen bide digitalean aurrera egiteko beharra, eta hasieran hardwarean, irakasleentzako koordinazioan eta prestakuntzan gabezia nabariak antzeman ziren arren, aurrerapen nabarmenak eman dira. Honen adibide gisa, egun irakasleek Classroom edo Google Sites erabiltzen dituzte ikasleekin edukia partekatzeko tresna gisa.

LH 1. mailatik aurrera, ikasleek helbide elektronikoa korporatiboa dute, irakasleekin komunikatzeko baliabide gisa balio duena. 21/22 ikasturtean Ikastetxeak 5. mailako ikasleentzako 52 chromebook ere eskuratu zituen, eta 22/23an 6. mailako ikasleei zabalduko zaizkie. 22/23an 1., 2. eta 3. DBHko ikasleentzat 1x1 modalitatean antzeko ekipamenduak eskuratuko dira, hurrengo urteetan DBH-ra iristen diren ikasleek segidan jarraituz. Azkenik, 25/26 ikasturterako, DBH eta Batxilergoko ikasle guztiek euren

gailu digitala izango dute.

Azkenik, azken urteotan irakasleentzako prestakuntza-ikastaro desberdinak egin dira, IKTak erabiltzea eta metodologia aktibo ezberdinen ezagutza helburu dutenak. Irakasle guztiek azken urteotan 3 mailako prestakuntza jaso dute, oinarrizkoa, erdi mailakoa eta goi mailakoa, pertsona bakoitzaren gaitasun mailaren arabera. Prestakuntza honetaz gain, ordenagailuen mantentze-lanak ere baditugu, zeinaren helburua azpiegitura guzti horiei eustea den; ez bakarrik zentroko ordenagailu geletan, ordenagailu gela guztietan eta irakasleen chromebook-etan, baita ikasleek erabiliko dituzten gailuak ere, plataforma digitalak behar bezala funtziona dezaten eta baita familiei laguntzeko ere.

Proiektuaren justifikazioa

Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

Gure gizartea eta batez ere hezkuntza komunitatea gero eta gehiago murgiltzen ari den ingurune teknologikoan, premiazkoa da ikastetxearen barnean ezarriko den eta gida bezala balio duen proiektu digital baten baliabidearekin elkarlanean aritzea; teknologiaren aurrerapenei loturik digitalizazio arloan eskolako estamentu guztiak gaituko dituzten helburuak zehazteko eta horiek betetzeko gai garela ziurtatzeko gida bezala. Testuinguru honetan, gure ikasle eta irakasleak erronka teknologikoen aurrean gaitzea xede izanik, eskolaren eragina eta garrantzia funtsezkoa suertatzen da zeregin honetan.

Elaborazio prozesua eta lan-taldea

Lehentasunak zehaztu.

Planifikazio maila zehaztu.

Nor izango da eragilea?

Proiektu hau aurkeztu zenetik, planifikazioa ezinbesteko estrategia bilakatu zen ikastetxeko egunerokotasunean landuko zen arloa izanik. Beraz, zuzendaritza-taldearekin hitz egin ondoren, gure ikastetxeko erainik bakoitzeko arduradun bat osatzen dute lan-taldea mentorearekin batera. Hasieran aipatu dugun bezala, ikastetxeak 4 pabilioi hartzen ditu barne, Haur Hezkuntzatik Batxilergora arte, beraz, eraikin bakoitzean teknologia beharrak oso desberdinak izanik kontuan hartuz, halaberrez eraikin eta etapa bakoitzaren ordezkari bezala agertuko den pertsona bat izango dugu momentu oro. Beraz, hasierako pausuak ikastetxearen egoeraren ezagutzarekin eman dira, Selfie tresna ikasle zein irakasleengana helaraziz. Horretaz gain, hilabetero bi edo behin batzeko proposamena egin da, helburuak finkatzeko eta proiektuaren nondik norakoak garatzeko laguntza eta orientazioak eskainiz.

Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena

Proiektu digitalak Urteko Planean izango duen eragina azpimarratu beharra dago; izan ere, gure ikastetxearen identitatearen parte diren ezaugarrien isla da, lortu beharreko helburuak proposatzen baititu eta ikastetxeko egitura antolatua eta funtzionala azpimarratzen duelako.

Horretaz gain, kontuan izanik ikastetxeko hezkuntza ikuspegia eta baita irakaskuntza estrategiak ere, Urteko Planean barneratuko ditugu hezkuntza komunitateak zehazten dituen ekintza eta antolatutako jarduerak urtebeteko epean, hezkuntza erakundeek ezarri dutenaren arabera. Horrela, ekintzak burutzeko epeei erreparatu, egin beharreko jarduerak dokumentu horretan zehaztea premiazkoa da epe horretan burutzeko ditugun jarduerak aurreikusi, antolatu eta garatzeko helburuarekin.





2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.

SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

Errealitatearen azterketa burutzeko erabili dugun tresna SELFIE erraminta izan da. Tresna honek ikastetxeko argazki eguneratua ematen digu, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan teknologia digitalak erabiltzeko estrategiak eta praktikak erakutsiz. Horrela, SELFIEak aukera ematen digu indarguneak eta ahuleziak identifikatzeko, eta ikastetxean teknologia digitalak erabili eta modu arrakastatsuan barneratzeko plan bat sortzeko. Tresnaren analisiarekin hasteko, oinarrizko 8 arloen laburpen bat burutuko dugu: lidergoa, kolaborazioa eta sareak, azpiegitura eta ekipamenduak, etengabeko prestakuntza profesionala, pedagogia, ebaluazio-jarduketak eta ikasleen konpetentzia digitalen hausnarketa, hain zuzen ere.

Datuen azterketarekin hasteko, HH eta LHko etaparen datuak aztertzen hasiko gara. Teknologia irakaskuntzarako modalitate berriak sustatzen dituela adierazten dute irakasleek, eta horren erabileraren buruzko eztabaidaren beharra azpimarratzen dute, hezkuntza-testuinguruan erabiltzeko ohitura berriak garatuz. Modu honetan, ordenagailua egunerokotasunean ikasteko tresna bezala planteatzen da, gelako testuingurura mugatuz. Ikasleei eskaintzen zaizkien ordenagailua klaseko jardueretan parte hartzeko gailu digitalen eskuragarritasuna azpimarratzen du, nahiz eta arazoren bat izatekotan (aplikazio informatikoetan, interneterako konexioan...) laguntza teknikoaren eskasia azpimarratzen den.

Beste alde batetik, teknologia digitalak erabiltzeko prestakuntzari erreparatuz, LHko langileen oinarrizko ahulezia baliabide digital berriak sortzeari dagokio, seguru aski ezagutzen dituzten aplikazioak oinarrizkotzat hartzen ditugunak direlako, eta lehen hezkuntzan ikasleekin modu efiziente eta arduratsuan teknologiarekin lan egitea oraindik erronka bat da. Ikasleen iritziei erreparatuz, esan beharra dago haiek teknologiaren inplementazioa ikasgelan ikusten dutela, batez ere, ikasleen arteko elkarlana eta ikasleen premietara egokitzen den tresna bezala, haien inklusioa ikasgelan barneratzen dela uste duten heinean arlo desberdinetako trebetasun digitalak garatzeko. Horretaz gain, nabarmentzen dute teknologiak eskaintzen dien aukera portaera segurua eta arduratsua bermatzeko sarean, eta irakasleen iritziarekin kontrastatuz, haiek bai uste dute informazioaren kalitatea egiaztatzeko trebetasuna daukatela. Jarraian, teknologiaren erabileraren inguruan ateratako datuak aztertuko ditugu.

Ikastetxeko irakasle eta zuzendaritza taldearen iritziz, teknologiaren erabilera mugatzen duten faktorerik garrantzitsuenak interneterako konexio mantsoa eta ez oso fidagarria nabarmentzen da, baina baita irakasleentzako denbora falta konpetentzia digitala garatzerako orduan (%60ak erantzundakoa). Halaber, konpetentzia digital nahikoa ez duten irakasleen portzentaia atara da, ia inkestatutako ena (%46,7a). Honetan zeresan handia izan dezake irakasleen adinaren batezbestekoa eta testuinguru digitalaren haustura azken denboraldi honetan, prestakuntzarako abagunerik gabe. Izan ere, %73.3ak deritzo urruneko irakaskuntzarako materiala prestatzeko zailtasunak dituztela. Indargune bezala, aipatzekoa da ikastetxeak komunikazio erregularra eta ongi antolatua mantentzen duela familiekin, batez ere zuzendaritza taldeak azpimarratu duen erantzuna izanik.

Halaber, garapen profesionaleko programetan parte hartzea eta haien kolaborazioa ikastetxean arlo digitalean askoz garatuago ikusten du zuzendaritza taldeak irakasleek baino, ikaskuntza birtualeko testuinguruetan eskarmentu gutxi adieraziz (irakasleen %10a zuzendaritza-taldearen %50rekin alderatuz).

Etengabeko Prestakuntza Profesionala (EPP) aztertuz, puntuazio txarrenak izan dituzten irizpideak (ez dela batere erabilgarria adieraziz) garapen profesional presentziala, ikasketa-bisitak eta programa akreditatuei dagozkie. Honek adierazten ditu ikastetxeak proposatutako formakuntza programak ez direla erabilgarriak suertatu praktikan jartzeko ikasgelan. Aldiz, asko baloratzen duten item bat barne-orientazio eta aholkularitzari dagokio, eta baita kolaborazio bidezko garapen profesionala ere: elkarlana irakasleen artean asko baloratzen dutela ondorioztatu dezakegu, beraz.

Ziurtasuna teknologia erabiltzerakoan aztertzen badugu, komunikazioa eta eskolak ematean da irakasleen ziurtasunik handiena erakusten duten aldagaietan, atzeraelikadura eta laguntzarako beharra agertuz. Edonola ere, irakaskuntza digitalari eskeinitako denbora-portzentaia da daturik bereizgarriena, %60ak adierazten duelako azken 3 hilabeteetan denboraren %25a baino gutxiago eskaini dutela teknologia digitalak ikasgelan erabiltzeko. Orohar, teknologiarekiko harrera geldoa nabarmentzen da irakasleen artean, %23ak beste ikaskideak baino beranduago teknologia digitalak hasi dituela erabiltzen argudiatzen baitu, eta %39ak animatu da ikaskideekin batera egin duelako. Berritzaile bezala, bakarrik irakasleen %23a nabarmentzen du bere burua proaktiboa teknologian.

LHko etaparen datuekin bukatzeko, ikasleen iritzia laburbilduko ditugu teknologiaren erabileraren inguruan. Ikasleen %31ak adierazten du teknologia erabiltzen duela egunean ordubete baino gehiago aisialdirako, eta ikasteko helburuarekin %53ak ez du inoiz edo ia inoiz erabiltzen. Ikastetxean, aldiz, %15ak adierazi du egunean ordubete baino gehiago erabiltzen duela, astean behin izanik maiztasunik handiena (%41a). Erabileran oso gaituak dira ere nahiz eta adin txikikoak izan, ia erdiak (%47,5ak) badaki aplikazioak erabiltzen inolako laguntzarik gabe, eta bakarrik %33,7ak adierazi du gailu digitalak nola erabiltzeko

argibideak jaso dituela.

Behin LHko etaparekin bukatuta, DBH eta Batxilergoko datuekin jarraituko dugu. Hemen, LHn bezala, irakasleek aukera bat ikusten dute ere teknologian irakaskuntza modalitate eta elkarlanerako tresna indartsua bezala, baina, era berean, ikaskuntza digitala aztertze denbora nahiko eskasa dela ere adierazten dute. Kolaborazio eta komunikazio-kulturaren alde egiteko neurrien artean, teknologiaren erabilerrari buruzko eztabaidak eta elkarlana gehien baloratzen diren ezaugarriak dira.

Azpiegiturak aztertuz, irakaskuntzara eta ikaskuntzarako gailu digitalen influentziaz jakitun dira, baloratzen dituztelarik bai ikasle bai irakasleek; baina laguntza teknikoaren beharra argi geratzen da oraingoan ere, arrakala digitala nabarmenduz. Pedagogia aldetik, ikaskuntza eta irakaskuntza-praktikak egunean zehar lantzerako orduan, hezkuntza-komunitatearekin komunikatzean aurkitzen dute langileek prestatuen haien burua (familia eta lankideekin komunikatzeko biderik ohikoena izanik, eta DBH 1. mailatik aurrera Inika plataformaren erabilera ere barneratu behar dugu atal honetan.

Honetaz gain, hezkuntzarako online baliabideen erabilera ere nahiko ohikoa da etapa honetan (Kahoot, Google Classroom, Power Point... egunean zehar erabiltzen diren programak izanik eta irakasle zein ikasle nahiko kontrolatzen dituzte. Edonola ere, baliabide digital berriak sortzerako orduan da irakasleek zailtasunik handiena topatzen duten egoera, oraindik aplikazio berriak frogatzeko ausartak gutxi direlarik. Beraz, eguneroko jarduerari erreparatuz, irakasleak eskolak prestatzeko eta komunikazio bide bezala segurtasunez ikusten dute teknologia, baina atzeraelikadura eta laguntza tresna bezala ez daude batere ziur aurkitzen.

Teknologiak ikasgelan aplikatzea daukaten abantailak aztertuz, ikasleen artean gehien baloratzen dena diziplinarteko proiektuak dira, haien arteko elkarlana sustatzen duelarik. Irakasleek, aldiz, gehiago baloratzen dute teknologiak sustatzen duen sormena eta gazteen inklusioa haientzat erakargarria den mundu honetarako. Halaber, ebaluazio prozesuak aberasteko kontuan har daitezkeen neurririk aukeratuenak gaitasunen ebaluazioa eta atzeraelikadura egokian datzate, ebaluazio digitalak ikaskuntza prozesuen inguruko hausnarketa burutzeko lagungarria izan daitekeela argudiatuz.

Horretaz aparte, ikasleen konpetentzia digitalaren inguruan lortutako datuak ere aztertuko ditugu. Arlo hau ikasleek modu seguru, sortzaile eta kritikoa erabiltzeko behar dituzten trebetasun, ezagutza eta jarrerari lotuta dago. Lehenengo postutik hasita, ikasleek haien burua trebean ikusten dute eduki digitalak sortzen eta portaera arduratsu bat izaten sarean (nahiz eta haien adinagatik oraindik oso urrun egon jakinda). Hain zuzen ere, sareak dituen arriskuez oraindik jakitun ez direla argi eta garbi dago, eta modu arduratsu batean ikasi behar dute teknologiaren kontsumo egokia egiteko (iturri fidagarriak, egunean zehar eskainitako ordu kopuruak...).

Erabilera ohiturei dagokionez, ikaslerik gehienak ikastetxeko lanetarako erabiltzen dituzte teknologiak (%45ak ordu bete baino gehiago), baina portzentai berdinak ere aisialdirako erabiltzen du teknologia (jolasteko...). Beraz, naiz eta tresna oso gustokoa izan klaseko lanak egiteko, askok teknologiarekiko menpekotasuna erakusten dute eskolatik kanpo ere. Ikasleen portzentai handiak ez du laguntzarik eskatzen badakielako software bat menperatzen (%62,7a), eta bakarrik %34ak adierazten du gailu digitalak nola erabiltzen irakatsi diotela. Datu deigarria da ere %30ak adierazten duela gailu digitalak ikasteko erabiltzen dituen arreta galtzen duela erraz.

Jarraian, teknologiaren erabilera mugatzen duten faktoreekin jarraituko dugu. Azpimarratu beharra dago aipatuena behin ere interneterako konexio mantsoa eta fidagarri eza dela (irakasleen %80a adierazitakoa eta zuzendaritza-taldearen %75a), laguntza tekniko mugatuarekin batera. Beste aldagai bat, haur hezkuntza eta lehen hezkuntzan gertatzen den moduan, irakasleentzako denbora falta aipatzen da teknologia berriak arakatzeko eskaintzeko, hemengo datua altuagoa izanik, kontutan hartuz maila hauetan askoz gehiago erabiltzen dela teknologia (%80ko bozketarekin irakasleen artean eta %75a zuzendaritza taldean). Ondorioz, konpetentzia digital nahikoa ez duten irakasleak ere daudela aipatzen da, datu nahiko antzekoa aurreko etapekin konparatuz (irakasleen %40a eta zuzendaritza taldearen %50a).

Eskolatik kanpo teknologia erabiltzearen faktore positiboak kontutan hartzen baditugu, azpimagarriena ikastetxeak izandako estrategia digitala da, nahiz eta irakasleen emaitzak (%80a) eta zuzendaritza taldearen (%25a) arteko aldea oso handia izan. Aipatu dugun moduan, beste faktore positibo bat da ikastetxeak komunikazio erregularra eta ondo antolatua daukala (%50ek bozkatutakoa), komunikabiderik ohikoena izanik eskolan.

Azkenik, garapen profesionaleko ekintzak aztertuz, irakasleen iritzia barne-prestakuntza eta garapen profesionala kolaborazio bidez azpimarratzen dute profesionalki gaituzko dituzten tresnak bezala. Gutxiak ikusten direnak baliogarri bezala, kanpoko ikasketa bisitak eta programa akreditatuak dira, haien erabilgarritasuna erabat eskasa izan dela argudiatuz. Lehen hezkuntzako datuekin alderatuz, DBH eta Batxilergoan ere ikusi dezakegu irakasleen %80ak teknologia digitalak erabiltzen hasten dela lankideekin batera, bakarrik %20a hasi da lankideak baino lehenago erabiltzen. Emaitza oso desberdinak zuzendaritza-taldeari erreparatuz gero; %75ak adierazi du lankideak baino lehenago hasi dela erabiltzen, atzeratuago doazenekin alderatuz (%25a).

Behin ikastetxearen egoeraren analisisia burutuz, AMIA matrize batean ikastetxearen aukerak, indarguneak, ahuleziak eta mehatxuak zehaztuko dira, gero horien inguruko helburuak ezartzeko. Gure kasuan, nahiz eta Azkorri etapa desberdinetan

banatuta egon, helburu komunak ezarri dira ziklo guztietarako, beharrak eta ahultasunak etapa guztietan zehar oso antzekoak direla ikusi ditugulako. Hortik abiatuta, etapa desberdinetan zehaztuko lirateke prozedura eta eginkizunak.

AMIA analisia

Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

Faktore negatiboak

Ahuleziak (barne-faktoreak)

1. Irakasle gehiengoaren teknologia trebetasun falta.
2. Denbora falta irakasleen konpretentzia digitalak lantzeko.
3. Funts falta

Mehatxuak (kanpo-faktoreak)

1. Baliabide falta konexio eta mantentze teknologikorako beste ikastetxeekin alderatuz.
2. Teknologiaren aurrerakadaren erritmoari egokitzeko zailtasunak.

Faktore positiboak

Indarguneak (barne-faktoreak)

1. Ikastetxearen estrategia digitalaren plangintza.
2. Urtez urte areagotzen diren baliabide teknologikoen presentzia (ikasle bakoitzarako Chromebookak...)
3. Ikasleen harrera ona teknologiarekiko.

Aukerak (kanpo-faktoreak)

1. Programa informatikoen ugaritasuna eta erabilera.
2. Kolaborazioak beste ikastetxe edo erakundeekin.
3. Garapen profesionaleko programetan parte hartzea

Autoebaluazioaren ondorioak

Hausnarketa eta **AMIA** tresnatik ateratako ondorioak.

Indarguneak optimizatu aukerak areagotzeko

Ikastetxeak duen eskarmentua ikaskuntza birtualeko testuinguruan baliogarria izan liteke garapen profesionaleko sareak hedatzeko eta beste ikastetxeengandik desberdintzeko, aurrerapen teknologikoa dela eta. Gainera, ikastetxeak gero eta gehiago eskuratzen ari dituen ekipamenduei esker, eskuragarri izan ahal ditugun aplikazioak ikasketa prozesua aberasteko gero eta ugariagoak izan daitezke.

Ahuleziei aurre egin aukerak aprobetxatzeko

Funts falta arazorik oinarritzkoenatarikoa izanik, programa informatiko egokien egokien hautaketa eta eskuragarritasuna aukera bat izan liteke eskolaren estrategia teknologikoan. Horretaz gain, irakasleen kompetentzia digitalen eskasia kontuan harturik, beste erakunde edo ikastetxeekin kolaborazio harremanak burutzea lagungarria suerta liteke haien prestakuntzan.

Indarguneak optimizatu mehatxuak indargabetzeko

Nahiz eta interneterako konexio edo laguntza tekniko mugatua ikastetxeko ahuleziarik handienatarikoa izan, ikastetxeko estrategia digitalaren pean barneratuta dagoen aldagai bat da eta ikastetxea lanean murgilduta dabil arazo honi lehenbait lehen aurre egiteko. Horrela, beste irtenbideekin konpontzen saiatzen gara egunean zehar (mugikorren datuak erabiliz...). Halaber, irakasleen zailtasunak azpimarratu ditugu gaur egungo teknologiaren hedapen azkarraren ondorioz, baina askotan ikasleek daukaten jakintasuna eta ohitura oso baliogarria da eskolako lanetarako elkarlanean aritzeko eta konpontzeko.

Ahuleziei eta mehatxuei aurre egin

Hezkuntza eredu berriak halabarrez teknologiarekiko egokitzapena eskatzen dute, eta horretarako ahulezia ere topatzen dugu irakasleen trebetasun teknologikoan, esan bezala. Edonola ere, ikastetxeak barneratuta dituen ibilbide digitalak eta komunikaziorako erabiltzen ditugun tresna teknologiko guztien erabileraren ondorioz, irakasleak pixkanaka ohitzen ari dira teknologiarekin lan egitera, eta premiazko beharra bilakatu da horrekin loturiko ekintzak landu eta burutzea. Azkenik, baliabideak eskuratzea ikastetxearen laguntza tekniko egokia izateko ezinbestekoa da.



3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

LG Lidergoa eta gobernantza

Helburua

Deskriptorea

LG 1.1 Ikaskuntza digitalerako teknologien ahalmena argi markatzen da

Epea

Adierazlea

Mota

Helmuga

Ekintzak

Baliabideak

Arduradunak

Epea

Egoera

II Irakaskuntza eta ikaskuntza

Helburua

Irakasleen %80ak akreditazio digitala lortzea

Deskriptorea	Epea	
II 1.1 Pertsonala eta ikasleak gai dira arlo digitalean	2024/01/01	
Adierazlea	Mota	Helmuga
II 1.1 A2 Ikastetxeak hautatu / egokitu / garatu du programazioen jarraipena eta ikasleen ebaluazioa eg		

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Formakuntzarako denbora planifikatu eta ezarri	Egutegia, ordutegiak finkatu	Mentorea		Prozesuan (%80-99)
Arlo digitala garatzeko formakuntzak burutu	Formakuntza programak	Mentorea		Prozesuan (%80-99)

GP Garapen profesionala

Helburua

Irakasleen arlo digitalan garapen profesionalerako sareak indartzea

Deskriptorea

GP 1.5 EGP egiaztatu/ziurtatuak lortzeko aukerak sustatzen dira

Epea

2025/01/01

Adierazlea

Mota

Helmuga

Bai/Ez

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ingurune digitalak diseinatu online heziketa hobetzeko.	Hezkuntza erraminta digitalak eskuratu, ikasgela birtualak...	Zuzendaritza taldea		Prozesuan (%40-59)
Kanpoko erakundeekin harreman-sareak garatu	Ekitaldiak (e-Twinning...), harremanetarako saioak...	Zuzendaritza taldea		Prozesuan (%60-79)
Ebaluazio eta tutorizazioa linean garatu.	Programa/webguneak	Mentorea eta koordinatzaileak		Prozesuan (%80-99)
Formakuntza digitala antolatu.	Planning bat burutu lankide arteko espazioa sortuz baliabide digitalak ikasteko/partekatzeko	Mentorea		Prozesuan (%80-99)

EJ Ebaluazio jardunbideak

Helburua

--

Deskriptorea

Epea

--	--

Adierazlea

Mota

Helmuga

--	--	--

Ekintzak

Baliabideak

Arduradunak

Epea

Egoera

--	--	--	--	--

EC Edukiak eta curriculuma

Helburua

--

Deskriptorea	Epea

Adierazlea	Mota	Helmuga

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera

EN Elkarlana eta networking-a

Helburua

Deskriptorea		Epea
Adierazlea	Mota	Helmuga

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera

AZ Azpiegiturak

Helburua

Euskarri teknologiko segurua sortzea

Deskriptorea	Epea	
AZ 2.6 Agerikoak dira laguntza teknikoa eta erabiltzaileari arreta ematea	2024/06/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
	Bai/Ez	

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Eskolako segurtasun digitalaren erregistrorako dokumentuak sortu.	Erregistrorako aplikazioak	Informatika taldea		Prozesuan (%80-99)
Azpiegiturak bermatu: konektibitatea eta zerbitzu digitalak.	Euskarri informatikoak	Informatika taldea Zuzendaritza taldea		Prozesuan (%60-79)
Talde tekniko egonkorra eratu eskolan.	Funtsak eskaini giza-baliabideak areagotzeko	Zuzendaritza taldea		Prozesuan (%60-79)
Baliabide teknologikoak areagotu	Softwareak, kudeaketa programak...	Informatika taldea		Prozesuan (%60-79)

IB Ikastetxeko berariazkoak

Helburua

--

Deskriptorea

Epea

--	--

Adierazlea

Mota

Helmuga

--	--	--

Ekintzak

Baliabideak

Arduradunak

Epea

Egoera

--	--	--	--	--



4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

	Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila	Hobetzeko proposamenak
LG						
II	Irakasleen %80ak akreditazio digitala lortzea	Mentoretzaren egutegiak zehaztutako datetan: 2024 urtarrilan		Mentoreak	Prozesuan (%80-99)	
GP	Irakasleen arlo digitalan garapen profesionalerako sareak indartzea	Seihilabetero		Zuzendaritza taldea eta formakuntza arduradunak	Prozesuan (%40-59)	
EJ						
EC						
EN						
AZ	Euskarri teknologiko segurua sortzea	Hiruhilabetero		Informatika taldea eta zuzendaritza	Prozesuan (%60-79)	
IB						